

Zer berri Eloi Uriarte atxilotu du poliziak Baionan
Kale kantalian Ernesto Oregi Sanferminak gogoratzuz

bitpilean

SORALUZeko
HAMABOSTEKARIA
136. alea, 2006ko
ekainaren 23an



Iñigo Alberdi

Ilusio eta
gaztetasun
doinuak
orkestarako

6x0 HIPOTEKA > GO



Sei hutsari
ezetz aurkitu hau
bezalako
hipoteka bat

CAJA LABORAL
ELSKADIKO KUTXA



%0ko
interesa lehenengo 6 hilabetetan
gainerako epean: Euribor+0,55

Irekitze komisioa: %0,50
Amortizazio Aurreratuaren komisioa: %0
Kitapen Aurreratuaren komisioa: %1
Epea: 40 urte
Zenbatekoa: Tasazio-balioaren %80a arte




U.T.B. adibidea %3,401

2006-03-23ko BOEn argitaratutakoaren arabera, urtebeteko Euriborraren azken indizea (%2,914) oinarri hartuta kalkulatuta da 25 urterako mailegu batentzat.


Eskaintza horretaz baliatu ahal izango dira 36 urte baino gutxiago dituztenek
EAEn eta Nafarroan
2006-06-30a arte.

 **SORALUCE**

Fresaketa teknologia



 **SORALUCE**
GRUPO DANOBAT

 **SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

Ondarea eta ardurak



ANGEL CATALAN ZULAIKA

Soraluzetarrok ondo dakigu gure herri maittea bailara estuan sartuta dagoela. Horrek baldintzatu eta zaildu egiten du azpiegitura lanak gauzatzea, gure herriaren ongizatea eta garapena lortzeko bidean.

Mende hasiera honetan, herrirako sarre-
rak hobetzeko lanak egin dira, trenbide za-
harra aprobetxatuz, eta baita etxebizitza
berriak eraiki ere, lantegi zaharrak edo erai-
kin hondatuak bota ostean. Herria bizirik
dagoela eta hazten ari dela ikusten dugu,
etorkizunerako bidean sendo.

Baina aldaketa sakon eta beharrezko
hauek gure herriaren benetako egoeraren
hausnarketara naramate.

Begiratu batean, orduko herritarrek maitasun handiz eta esfortuz eginiko eraiki-
nak ikus ditzakegu; baina urte gutxian on-
dare horren zati bat galdu dugula kontura-
tuko gara: trena, Erregetxea, kainoi-fabri-
ka zaharra, elektraetxeren bat... Egia da,
hautako batzuen desagerpena beharrez-
koa izan dela eta lan berriek hartu dutela
haien lekua (bide berriak, kiroldegia, etxe-
bizitzak eta Deba Ibaiertzeko pasealekua,
adibide). Beste batzutan, ordea, benetako
arrazoia ezagutzen ez badut ere, ez dugu

ezer aberasgarririk sortzen ikusi. Adibide-
rik tristeena Erregetxekoa da. Soraluzeta-
rren lanari esker eraikia, armen merkatuak
izandako garrantziari eusteko. Gaur egun,
gure herriak Kultur Etxerik ez duen garaio-
tan, ezta kultur ekintzetarako leku apro-
sik ere, herritar askori eraikin garrantzitsu
hura dator kigu gogora.

Baina soraluzetar gehienentzat eraikin
garrantzitsuena eliza da. Denborarekin hon-
datutakoa konpontzeko ahaleginetan ari
dira, diru-batzearen eta erakunde publikoen
laguntzaren bidez. Baita atariko egur taila
zoragarria ere, ondare artistiko izendatua.

Gaur egun ez dago eraikinekiko errespe-
turik, ez diogulako daukagunari garrantzi-
rik ematen. Herriak biztanleen lanarekin
osatzen dira eta denon ardura da jasotakoa
mantendu eta hobetzea. Garapenaren alde-
koa naiz, noski, baina garrantzitsua dena
mantendu eta aberastasunak egokituz.

Gure ardura da baita ere, datozenei on-
darearekiko benetako maitasuna transmi-
titzea, zentzuzko hazkundera izan dezagun
gure soraluzetar nortasuna mantenduz eta
ondarea garapen faltsuaren izenean egiten
diren kalteetatik babestuz.

HERRIKO ONDAREA MAITATU ETA MANTENTZEA DENON KONTUA DA



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. beheka, PK 27 - 20590 Soraluze
Telefona 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga,
Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea: Ugaitz Catalan

Logotipoa: Jon Gabilondo

Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen
aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek
erakunde hauen
dirulaguntza
jasotzen du euskara
bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ERREPORTAIA

Iñigo Alberdi plazentziatarra da martxoaz geroztik Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari nagusi berria. Bere lanaz, orkestaz eta musikaz aletasunaz galdegin diogu

Zorion agurrak



Eider Moreno

Ekainaren 19xan,
16 urte

Zorionak potxola, jarraitxu beti bezain alai!! Musu erraldoi bat etxeko eta familixakuen partez, bereziki Ane, Unai eta Patxiaren partetik.



Markel Gil

Ekainaren 22xan,
6 urte


Zorionak txapeldun! Etxekuen partez musutxu asko.



Garazi Aizpurua

Ekainaren 12xan,
3 urte

Zorionak etxekuen partez eta musu haundi bat.



Zuaitz El Kanouni

Uztailaren 11an,
2 urte

Zorionak !! Asun eta Emilitan partez.

Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Ekintza

Donostiako musika elektronikoa- ren

X. Nazioarteko Jaialdia

Bass Reaction. Abuztuaren 12, 13 eta 14an izango da Play Aretoan (Hernani-Donostia). **Epea:** 2006-08-14.

Tfnoa.: 943 333 201.

Ikastaroak

Alzheimerdun gaixoen zaintza

Larrialdiak SL. LEZO. Fase teoriko-praktikoa: uztailaren 16tik abuztuaren 8ra. Fase praktikoa: irailaren 1etik urriaren 16ra. Ikastaroaren helburua da, alzheimerdun gaixoen behar biopsikozzialak kontuan harturik, erizaintzako zaintza osagarrien erabilera, egoera ezberdinetan aplikatzea.

Tfnoa.: 943 520 400.

Lehiaketak

Euskal Herriko III. Graffiti lehiaketa

Euskara Elkartearen Topagunea. 1.200 euroko 3 sari. Irailaren 16an Tolosan. Lehiaketa parte hartzeko aurrez informazio bidali behar da.

Tfnoa: 94 621 51 16.

Hildakoak

- INAZIA BARRENETXEA UZIN
- FELIX ETXANIZ BEITIA
"ARRUZA"

Gutunak

Ibaixari egurra!!

Beti aurrean izan dugu, begi bistan, herri honetan mendeetan dijoan bidea, gure ibaia bai. Inoiz pentsa al dugu zertan gabiltzan? zaindu eta maitatu beharrean kutsatu eta pozoindu besterik ez dogu egiten, gizarte honen islada esanguratsuen. Gauzak eta gauzak ditugu, beti erosi eta erosi, kontsumoaren zurrumbiloa. Geldi gaitezen eta pentsa dezagun naturan, ibaia zikingune latza da, denok ikusten dogu, baina ez al gara konturatzan ala! Nazka ematen du! Normala al da ibaia bitzitza eta naturaren ezaguerria, denok behar dugun ur prezia-
tuaren gunea.

Egun hauetan asanbladan berbetan egon ostean, nahikoa dela pentsa dou, hortaz garaia dela zaborrak botatzeari etetzea eta dagoena ataratzeari ekitea, denon eskuetan baitago. Ibai iluna, osasuntsu eta garbia bilaka dezagun. Mundu

hontan badirudi dena saldu eta erosten dela, natura ez, hau da preziorik ez duen altxorra, bera gabe ez bait gara ezer.

Goikoei itxoiten badiegu beraien plan arraioei "Agenda 21", "garapen jasangarria"... iruzurra! benetan axola bazaigu guk geuk, denon artean, herriak bizirik daudela erakutsiz lortuko dugu. Bide batez beste proiektu txikitzaileen arriskuan gaudenez "AHT-TAV", "superportuak", "autopista"... eta halakoan aurrean ere herriak aurka gaude, ez baitugu euskal hiririk nahi.

Danon artian pixkanaka ibaixak itxura edarra har dezake, denok gustorago egon eta natura lagundu ANIMO ETA PARTE ARTU DENON ESKUE-TAN DAGO! GARBI DEZAGUN GURE IBAIA!

Soraluzeko Gaztetxia

Plazentziako ur txitak

Ibaia piska bat garbitu ahala ur txitak be agertu dira, baina umeak hartu egiten ditue eta hortara hil egiten dira, eta penagarria da. Oindio arrainak azaltzeko bada falta asko, baina ume horrek

jakin behar dabe horrelaxe hil egiten dirala dauden ur txita gutxi horrek.

Ezoz Garmendia



Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Etxabe Harategia



Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

Zer irizten dotsazu?

Uztaila badator eta 2006ko San Ferminak hastear dira. Aurten Iruñeako Udalak neurri bereziak hartuko ditu entzierroetan hainbeste jende pilatu ez dadin.

Izan zara sekula San Ferminetan?




Pakita Unanue
78 urte, etxeoandria

Bai eonda nao, baina esperientzia txarra izan zan. Ez jatazen bape gustau, ambiente eskasa ta entzierruan tokixa hartzeko gaizki. Oin berriz, telebisiñotik jarraitzen dittut, nerbiosa jartzen naiz.



Nikanor Iñurrieta
86 urte, jubilaua

Bai, han ibili ginan. Jaleo larregi egoten da baina, jente asko gainera. Gaur egun, telebisiñotik jarraitzen dittut bertako entzierruak.




Santi Alberdi
71 urte, jubilaua

Bai, ixa bertan geratu be. Goguan dakat ikaragarrixak in ginuzela bertara juteko, autobusari bultza be in bihar izan zotxagun. Baina edarki ibili ginan, entzierrua kanpotik ikusixaz.



Mertxe Rascon
41 urte, administratibia

Bai, egonda nao. Berriz be bueltauko nitzake, duda barrik. Ondo dare, ambiente asko egoten da; baina hori bai, pixkat desmadrauta ibiltzen da bertan.



Iñaki Iñurrieta
87 urte, jubilaua

Bai, izan nintzan. Baina oin enintzake juango sasoi ona bia da ta han aguan-tzeko, 18-45 urte bittartian. Hala be, jun ginanian ez ginuan entzierruan antxixkika ein.



Mireia Lamariano
15 urte, ikaslia

Egunez, txikixa nintzala, baina benetako juergan ondiok ez. Lagunekin gustora jungo nitzake. Ordurarte entzierruak telebisiñuan jarraitxuko dittut, zuzenian o bestela grabauta.

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura! Telf: 943 75 13 45

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

Osasun etxea euskalduntzeko eskari herritarra zapatuan

Euskal Herrian Euskaraz-eko ordezkariak Osasun etxea euskalduntzea eskatu zuten joan den zapatuan Plaza Barrian. Eskaeren artean, aurrerantzean kontratatu behar dituen langile guztiak euskaldunak izatea eskatzen zaio osasun etxeari, eta egun lanean ari diren langileak euskalduntzea. Ekimen honek 326 herritarren eta herriko 20 bat talde eragileren babesa jaso du.



Kalebarren zabalik izango da jaietan

Amaral de Sousa eraikuntza enpresako arduradunek adierazi dute irailera arte ez direla hasiko Kalebarrengo urbanizazio lanekin. Santiago eta Santa Ana jaietarako kalea libre izango da beraz, duela gutxira arte kontrakoa uste bazen ere. Egunotan Plaza Zaharrean ari dira lanean, uraren kanalizazioa berrizten. Lan hauek bukatutakoan Santa Ana kalera itzuliko dira, bertako urbanizazio lanak burutzera. Jaietarako amaitzea espero dute.



Arzabaletako lanak hil hontan amaituko dira

Hil honen bukaerarako amaituta egongo dira Ezozi Bideko Arzabaletako parkeko lanak. Inaugurazioa uztailean egingo da.

EPAKO ARTISTEN eskulanak ikusgai izan ziren joan zen astean Baltegiatako lokaletan. 40 emakume aritu dira ikasturtean zehar eskulanetako tailarretan ikasten

ESKERTZA
2006ko ekainaren 13an hil zen,
94 urte zituela

INAZIA BARRENETXEA UZIN
Goian bego

Etxeko denok bihotzez eskertu nahi dizuegu egun hauetan gure doluan laguntza eta elkartasuna eman diguzuen guztiori.

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

غازتلوپه تابلرنا

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

غازتلوپه تابلرنا



Eloi Uriarte atxilotu eta Parisera eraman dute

Ekainaren 27an, Espainiako eta Frantziako poliziek burututako operazioan Eloi Uriarte soraluzetarra eta beste 11 lagun atxilotu zituzten. Tartean Izaskun Gantxegi bere bikotekidea ere bai baina hau aske utzi dute dagoeneko. ETaren finantziazio egiturarekin lotura izatea egotzi diete. Hainbat alderdi eta taldek operazioa erabat zentzugabea izan dela salatu dute, atxilotutako jendea adinekoa eta azken urteetan bizitza publikoa egin duena delako. Ostegunean Parisen jarraitzen zuen atxilotuta.



Regina Maiztegi aske utzi dute

Regina Maiztegi soraluzetarra aske utzi zuten joan zen ostiralean 30.000 euroko fiantza ordainduta. Regina 2003ko azaroaren 18an atxilotu zuen Polizia Espainiarrak eta ordutik epaiketaren zain egon da.

Udalak amaituko ditu Arraikuako urbanizazio lanak

Joan den asteleheneko gobernu batzordean 23.089 euroko aurrekontua onartu zen, Sohercon eraikuntza enpresak burutu ez dituen Arraikuako urbanizazio lanekin bukatzeko. Urtebete da Arraikuako lanak hasi zirela (3 hilabetekoak behar zuten) eta aspaldian gelditu zegoen obra. Udalak kontratua eten eta bere gain hartu ditu falta diren lanak.



Puzgarriak ikasturte bukaerako jaialdian

Atxolin Guraso Elkarteak antolatuta, 12 urtetik beheragoko umeendako puzgarriak izango dira domeka honetan udal kiroldegian, 11etatik 14:00etara goizez eta 16:30etatik 19:00etara arratsaldean.

 **PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

 **HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

MABE
ILEPAINDEGIA



**ESTETIKA
I SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Ilusioa eta gaztetetasuna, EOS gidatzeko lema

Iñigo Alberdi Amasorrain plazentziatarra da martxoaz geroztik Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari nagusi berria. Erantzunkizun handiko kargua bada ere ilusio, konfidantza eta barne indarrez dagoela ezagun zaio. Gaztea izan arren, 33 urte ditu bakarrik, Esperientzia luzea dauka musika alorreko ekitaldi eta antolaketa lanetan. Donostian, EOSren egoitzan egin diogu elkarrizketa. Bere lanaz, orkestaz, musika zaletasunaz eta Plazentziako kultura musikalez galdegin diogu. Pasadizo politak kontatu dizkigu.

Zela bizi izan zenduzen izendapenaren inguruko gertaerak eta berririk?

3 hilabete pasatu dira bakarrik eta nahiko fresko daukat dana. Hasiera baten, esan zostenian ni nintzala hautagaixetako bat harriduria eta ilusiñua sentidu nittuan. Gero, erabakixa hartuta egon aurretik, prentsan segurutzat jo zebeñ ni izango nintzana zuzendari eta ordutik aurrera gaizki. Jente mordua telefonotikan deika hasi jatan zoriontzeko eta nik daneri esplikau bihar, ezetz, oindiok ez zeguala ezer. Izendatu ninduenian pozik, erantzunkizun haundi batekin, arduratuta, baina pozik.

Askok pentsau genduan eskuetan baitutia hartzera zoiazela. Zein da baina zuzendari nagusixan zeregina?

Beste enpresa bat izango balitz garentian lana izango litzake neria. Azken fiñian, ekipoko lana lideratzia eta orkestian ildo nagusixak aurrera eruatia, bai gestiño lanak egitten eta musika arloko ildo nagusixak jartzen.

Zerk emon zotsun atentiñua orkestako barne funtzionamentutik?

Espero ez neban gauzarik ez dot topau. Ikusi dotena izan da, kontzertu bat urtetzeko zenbat gauza bihar diran, tripak ikusten dittuzu, gauza asko dira: antolaketa, administrazio mailan, musika mailan... zenbat gauza konplejo daren engranau biharrekuak.

Jatorri askotariko musikarixak dare EOSn. Zelako harremana daukazu eurekin?

Harreman zuzena, egunerokua. Gehixen, enpresa komitekuakin eta komisiño artistikuakin, baina musikuekin banan-banan sarri egoten naiz, astian pare bat bidar edo. 98 lagunek osatzen dogu EOS: heren bat Euskal Herritarrak, beste heren bat Frantziar eta Espainiarrak eta hirugarren herena beste herrialde

batzuetakuak; gehixenak poloniarak.

Ze tradiziño dauka musika sinfonikuak Euskal Herrixan?

Orkestia sortu aurretik hamen musika sinfonikuak eta orkestalak ez zekan tradiziño haundirik, abesbatzek zeken moduan, eta kanpotik

musikari asko etorri zan. 25 urte honen buruan, baina, eskolia sortu da. EOSko musikarixak musika eskoletan jardun dabe irakasten.

Ez jako jente askori oso urrin geratzen musika klasikua?

Urruntasun sensaziño hori da ez dalako ezagutzen. Kanpotik begi-

“Errepertorixuaz abaltzia eta proiektu didaktiko pedagogiko bat martxan jartzia dira gure erronkak”



UMETAKO OROITZAPEN MUSIKALAK

“Gure etxian musikia eta entzun bai, baina afiziño haundiegirik ez da izan, izatekotan aman partetik gehixago aittanetik baino. Nik osteratxikittatik euki dot musikarako afiziñua. Gure onduan Imanol Lopez bizi zan, txistularixa, eta nik etxe haretan denbora asko egitten neban; uste dot haren inguruan zaletu nintzala. Goguan dakat ume txiki-txiki nintzala, 3 urteko edo, zela zeren txistularixak Plaza Zaharrian jotzen. Imanollek tanborran makilia emon eta “hala dirigidu! Edo egin zeozer!” esan zostala. Eta hantxe hasi nitzan jolasian.

Eta gero, plazentzian nik lehenengo gauzia egin nebana izan zan txistuan apuntau. Gero Ines Marikin ibili nitzan. Oso akordu politta daukat Ines Marin pasakalliekin.

Mari Carmen Olaizolakin be ikasi neban, eta Ikastolan Don Asensiokin koro txiki bat sortu genduan. Oso mar-

kauta dakaten errekuerto bat Santa Agedako koruana da, Zeletatik behera kantuan Don Asensio zuzendari zebala. Eta beste bi gauza dauzkat markauta: bata, Plazentziako jaixetan koruan Haendelen Aleluya, oin dala 25 urte. Eta beste rekuerto bat oso inportantia eta beste inun ikusi ez dotena: Musika antiguan barruko “canto del libro” esaten dana: eta hori da, liburu berdinetan abotsetara kantatzia. Oin dala 20 urte Erramu domeka baten kantau zebe, Vicente Olaizolak zuzenduta Santestebanen liburutikan, kredua, hiru abotsetara, danak liburu haundi batetikan. Hori tontokerixa bat da baina beste herrixetan galdu da oin dala gutxienez 80 urte. Kontu hau musika antiguan dabizenekin askotan komentau izan dot’



Argazkian Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Erreneriako Andra Mari Abesbatzarekin batera denboraldiko azken abono kontzertua eskeintzen

ratuta badaka halako figura enbala, elitistia izateko itxuria...baina ez da bape. Guk nahiko genduke, 30-40 urte bittarteko gaztiak euren aisialdiko beste aukera bat moduan kontsideratzia orkestia. Gaur egungo abonauen adin perfila 60 urte in-

gurukua da. Gure erronkia, beraz, horixe da: ahal danik eta jenterik gehixen erakartzia.

Ze berrikuntza nahiko zenduke ekartzia orkestari?

Orkestiak oin momentuan maila ona dauka. Estatu mailan EOS

erreferentietako bat da, baina nazioarte mailan egixa da ez garala oso ezagunak. Bi erronka haundi dittugu: lehenengua da bersatildade gehixago lortzia, hau da, erreperitorixua haunditzia. Gure egitura dala eta, mugatuta gare; horregaittik kosta egitten jaku programa berrixak montatzia. Bigarren erronkia da orkestra arluan proiektu didaktiko pedagogiko potente bat ipintzia martxan. 25 urte eta gero orkestiak rebertidu bihar dotsa gizartiar bere lana. Bestalde, nazioarte mailan eta grabaziño mailan gauza asko dago hobetzeko baina ardatzak beste bixak dira.

25 urte beteko dittu aurten orkestak. Era bereziren baten ospatzeko asmorik bai?

2007ko hasieran aurkeztuko ditugu 25 urteurrenekuak. Oingo aurkezpenian 2006-2007ko denboraldixa aurkeztu dogu. Ekitaldi berrixak izango dira, baina ezin dira aurre-ratu. Helburu inportantia izango da normalian egoten ez garan lekuetara heltzia, herrixetara, ez hiriburuetara bakarrik. Orkestia zerbitzu publikua da eta jentia gertu sentidu bihar dau.

Etorriko da egunen baten gure herrira? Nere aldetikan...lehenengo interesau ni izango nitzake.

Plazentzia musika arluan zela ikusten dozu?

Aspaldi ez naiz Plazentzian bizi (Bergaran bizi da), baina kanpotik begiratuta pentsatzen jata aktibidade politta daguala, beste herri batzutan baino gehixago, herri giro haundixagua dagualako igual. Gauzia ondo ikusten dot: korua oso ondo dago, musika eskoliak funtzionatzen dau eta musika moderno mailan be gauzak egiten dira. Oso ondo dago guzti hori.

MOTZEAN

- EGUNKARI BATEN BERGARARRA ZARALA IRAKURRI DOT: gizurra da.
- PLAZENTZIAKO LEKU KUTUN BAT: Estaziñua
- PLAZENTZIATIK KANPOKUA: Donostiako Haizeen Orrazia.
- GUSTOKO MENU BAT: txinoko arroza eta solomillua.
- UMETAKO OROITZAPEN BAT: Osuma basarrixan jolasten, Ernestokin.
- URTEKO EGUN BAT: gabon zaharra
- PLAZENTZIAKO MUSIKARI BAT: Don Asensio.
- BIDAIATZEKO LEKU BAT: Italia.
- NORA ERUANGO ZENDUKE ORKESTIA? Vienara edo Londresera.

- AUTORE BAT: Bach.
- OBRA BAT: Sostakovitxen 5. sinfonia.
- EUSKARAZKO KANTU HERRIKOI BAT? Argizari ederra. Aita Donostiak jaso zeban Leitzako basarri baten. Gero, Jesus Guridik Amaia operan erabili zeban zati baten
- ZE INSTRUMENTO DAKIZU JOTEN? Pianua, organua, klabeziña eta tronboiak in moldatzen naiz
- ZEIN NAHIKO ZENDUKE IKASTIA: biolontxelua
- PLAZENTZIAKO ORGANUA: organo ona da, 1910ean egin zeban Lope Alberdik. Egin zan denboratik erreformatzeke dago eta hori bentajia da.



65 MUSIKA IKASLEK
hartu zuten parte Musika Eskolako kurtso bukaerako kontzertuan. Euria egin arren, jente ugari hurbildu zen frontoira

San Andresen jaixak uztailaren 8, 9 eta 10ean

Urtero moduan uztaileko bigarren asteburuan jaiak antolatu dituzte San Andres auzoan. Hiru egunetan zehar; musika, kirolak, bertsoak eta jatorduak izango dira nagusi. Antolatzaileek dei egin diote soraluzetar guztiei aurten ere beste urte-tan moduan jai giroaz gozatzera urreratu daitezten. Hona hemen prestatu duten egitaraua:



Uztailak 8 zapatua

- 23etan **Imuntzo eta Belokirekin** erromeria

Uztailak 9 domeka

- 12:30etan **meza**
- Dantza saioa eta bertsolariak
- Unai eta Enaitz trikitilariak
- 14:30etan **bazkaria** Elkartean
- 18etan Pelota partiduak
- 19etan Bola txapelketa
- **Zezentxoak** eta **poneiak**

Uztailak 10 astelehena

- 12:30etan **meza**
- Umeendako jolasak.
- **Laja eta Landakanda** trikitilariak
- **Lizaso eta Egaña** bertsolariak
- 14:00etan auzokoen bazkaria
- 19etan **Emakumeen Bola Txapelketa**
- Erromeria gauerdira arte.

Danborradarako entsaioak asteartean hasiko dira

Santiago eta Santa Ana jaiak aste-ko hilabete falta denean, danborradako antolatzaieek dei egin die-
te 2006ko danborradan parte har-
tu nahi duten herritarrei datorren
asteartean, hilak 27, frontoira
hurbil daitezten, arratsaldeko
19etatik 19:30etara bitartean. Izen
ematea orduntxe eta ostegunean
ordu berean egin hal izango da.
Jaietara bitartean, asteartero eta
ostegunero egingo dira entsaioak,
arratsaldeko 19:30etan.



Udako irakurketa gida aurkeztu da Udal liburutegian

“Literatur bidaiak” izenpean, udal liburutegiak udako irakurketa gida aurkeztu berri du. Guztira, 30 libururen gomendioa luzatu die adin desberdinetako irakurleei, udan “munduko edozein lekura bidaiatu, abentura arriskutsuenak bizi, muga berriak ezagutu edo eta maitemintzeko”.

SENDABELARREN SEKRETUAK

irakatsi zizkieten Maria eta Mari Karmenek hilaren 17an San Andresera hurreratu ziren emakumezko hauei



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



Telefonoa 75 24 09

ARRANO tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Leire Bilbao, *Idazlea*

Leire Bilbao (1978 Ondarroa) idazle eta bertsolari bizkaitarraren "Ezkatak" estreineko poema liburua martxoan argitaratu zuen Susa argitaletxeak. Liburua oinarri hartuta, emanaldi poetiko musikal bat prestatu du Domentx Uzin eta Jon Basaurirekin batera. Uztailaren 7an kapillan izango dira, 20:00etan.



Uztailaren 7ko poesia emanaldian Jon eta Domentx izango ditu lagun Leire Bilbaok



"Ezkatak" izena jarri diozu zure lehenengo poema liburuari. Zergatik izen hori?

Liburuaren azal ikusita badi-rudi arrain ezkatak izan ditudala gogoan, gainera neu ondarrutarra izanda eta itsas gizon baten alaba... baina ezkata mota asko daude, ez arrainenak bakarrik. Ez genuke ahaztu behar, guri gizabanakooi azala erortzen zaigunean ere ezkatetan erortzen zaigula. Eta horretatik asko dauka liburu honek.

Lau ataletan banatu duzu liburua... Arrainari burua, zakatzak, ezkatak eta buztana jarri behar nizkion arrain oso bat bihurtzeko, ezta? Liburuaren burua, amua irensteko balio duen poemak osatzen du. Zakatzek arnasa ematen diote li-

buruari. Ezkatek azala eta amaierako poemek buztana.

Eta kantu bihurtu dituzu poemak... Dituzte, esan beharko dugu. Sorraluzeko bi lagun arduratu dira poemei doinua jartzen. Gitarra bat hartu eta segituan akordeak ateratzeko prest dauden bi lagun. Jon Basauri eta Domentx Uzin.

Hain zuzen ere, zuen lehendabiziko errezitaldia Sorraluzen eskainiko duzue.

Bi musikariak bertakoak izanda, non topatu leku hoberik? Ordubete inguruko emankizuna izango da, poemak eta kantu bihurtutako poemak tartekatuz. Uztailaren 7an herriko kapillan. Ikuskizun berezia izango da, poemak liburuetatik ateratzeko era bat.

BURUA KENTZEN

Badira
Emakume azalak
Ezkata usaina baino itsaskorragoak
Badira
Barrua nola hustu jakiteke
Urdaileira zuzenean doazen esku emeak
Badira
Amantalean batzen diren odolak
Badira
senarraren begirada duten arrainak
Badira
Arnasestuz erazten diren zakatzak
Badira
Olatuen dardara duten gorputzak
Badira
Maitale desleialarekin bezala
Itsasoarekin oheratzen direnak
Badira
Arrainei beraiena bailitz burua kentzen dieten emakumeak

Leire Bilbao



kutxa
gizarte ekintza

MENDATA taberna

Pizzak ●
Bokadilloak ●

Sukaldetik zure etxera!!

● Kazuelitak
● Razioak

ostirala **08:30 - 22:30**
larunbata **08:30 - 22:30**
Igandea **08:30 - 22:00**

Tel.: **943 75 13 87**

Herriko 11 txirrindulari "quebrantahuesos" martxan



Aragoiko pirineoetan urtero ospatzen den quebrantahuesos bizikleta mar-txa entzutetsuan 11 plazentziatarrek

hartu dute parte aurten. Gure ordezkarien artean Asier de los Rios izan genuen azkarrena 205 kmko ibilbidea egiten. 7138 partaideren artean 523. postuan iritsi zen, 6 ordu eta 35 minutuan. Bera atzetik Ruben Lopez (6:50), Urko Azkorbebeitia (7:25), Koldo Azkorbebeitia (7:25), Gaizka Larrañaga (7:31), Alfonso Martinez (7:34), Fernando Garcia (7:34), Jon Axpe (7:50), Xabier Axpe (8:02), Bitor Goenaga (8:02) eta Moises Aranzeta (9:16) sartu ziren.

16 bikote geratzen dira pelota txapelketan

Asier eta Iñakiren omenezko V. pelota txapelketari ekin zioten 28 bikoteetatik 16 onenek baino ez dute jarraitzen lehian. 2. faseko lehenengo norgehiagokak asteburu hontan jokatu dira. Hauek dira lehenengo fasean aurrera egin dute bikoterak:

1go taldean: Gorka Boyar-Gorka Varela, Jon Arrieta-Asier Fernández, Argoitz-Aritz, Azkona-Xabi Portu; **2. taldean:** Koldo Azkorbebeitia-Jokin, Koldo Heriz-Aitor Fernandez, Markel Albusua-Ander Mo-

ya, Jon Varela-Kiru II; **3. taldean:** Suar-Portu (aita), Iurgi-Iosu, Mai-kel-Arribi II, Eki-Ander Heriz; **4. taldean:** Beñat-Jon Gallastegi, Linoi-Txapel, Tornos-Mikel Osto, Zuhaitz-Kiru I.

Gaztetxoan pelota partiduetako finalak, zapatu honetan jokatu dira Arane kiroldegiko frontoian, goizeko 11etan. Infantilen partiduak ostiraleko arratsaldeko 7etara aurreratu dira. Guztira, 18 gazte jantzikotako dira zuriz bi egunotan.



**IHART ARLUZIAGA
ETA AMAIA
ARIZNABARRETA**
irabazi zuten Soralezeko III. torturaren aurkako emakumezkoen pala txapelketa. Azpitxapeladun Arrate eta Ainhoa eibartarrak geratu ziren.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

ATXOTEGI

Deba Arrokoan,
finalerdietako lehen norgehiagokan,
• Atxotegi - Arrizabalaga 22 (Elgoibar)
Lezaun - Sarasua 7 (Eibar)

LASKURAIN

• Larralde - Urberuaga 22
Baleztena - Laskurain 10
• Berasaluze - Zubieta 18
Apezetxea - Laskurain 12

JAUREGI

Usurbilen
• Armendariz - Zabalo 22
Erroizenea - Jauregi 18

FUTBITO

• Tornilleria Deba 0 - Gamusinos 4
• Torpedos 6 - Hola dok 1
• Fronton Team 4 - Artifices 3
• Kirikixos 1 - Gaztetxe 3

AGENDA

FUTBITO

Ostiralean 8etan
Bandera Trapo - Fronton Team
Ostiralean 9etan
Kirikixos - Guri-Guri
Zapatuan 6:30etan
Artifices - Gamusinos
Zapatuan 7:30etan
Gaztetxe - Hola dok

PELOTA

Deba Arroko finalerdietako bigarren norgehiagoka
Ostiralean, Olaztin, 22etan
• Erroizenea - Jauregi
Sueskun - Irurita
Zapatuan, Agurainen, 5etan
• Del Rey - Laskurain
Capellan - Nalda
Igandean, Elgoibarren, 12etan
• Atxotegi - Arrizabalaga
Lezaun - Sarasua

- Bizkarreko mina
- Esginzeak
- Tendinitisak
- Masajeak
- Erreuma
- Etxeetara fisioterapia
- Istripu ondorengo errehabilitazioa
- Kirol osteko errehabilitazioa

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Unai Ormazabal Iraola
Kolegiatu Zenbakia 947

Altos Hornos Industrialdea • Telleria, 6 bis • Of.11 • BERGARA
Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es

KM
Design

Diseinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Ernesto Oregi,

San Fermin zalea

46 urteko gaztea da Ernesto Oregi. 17-19 aldiz San Ferminetako entzierroan korrika egindakoa. Egunkarian agertu eta hurrengo urtekoa izan zen korritu zuen azkena, osabaren esanari kasu eginda, 10 bat urte igaro dira ordutik.



Noiz jua zinan San Ferminetara lehenengo aldiz?

18 urte inguru izango nittuan orduan, apostu bategaittik izan zan. Bizkai zanak, ezetz Iruñara jua, entzierrua korritu eta bertako argazki bat ekarri, esan zostan. Nik baietz. Ta han jua nintzan autostopian Iruñaraino domeka baten, astehelenian jai nekan ta. 1000 pezeta eta txuleta edar bat irabazi nittuan.

Zertan aldatu dira ordutik hona?

6 urte nindoian jua barik, aurreko urtera arte. Lotsa-garrixa irudittu jatan, egundoko dezepziua hartu neban. Lehen jentia jaira juaten zan, oin berriz botelloia besterik ez da ikusten, ez daukat ezer azken honen kontra, baina ez dakit... Gainera lehen tabernetan eta edozein musika entzuten zan (jotak...) ta akordeoiakin sartu ezker danak errespetatzen zebe. Gaur egun berriz txunba-txunba da printzipala. Degeneratzen hasi da dana eta geratu ezinekua da.

Zer dauke San Ferminak berezixa?

Amama eta beste familixako asko dittut nik nafarrak, eta nere etxian beti jarraitu izan dira San Ferminak. Nafarroako jaixak dira ta Nafarroa neretako... gure aberrixa! Pentsau, dultzainia entzun eta oilo narrua jartzen jata...



BERTSO BEGIZ

*Udan sartuta uztaila heldu,
zapi gorri ta zezenak.*

*Asko ta asko izango dira
bertara joango direnak;
zezen aurrean baldar samarrak
tabernetan trebeenak.*

*Zer gertatzen den jakin dezake
soilik probatzen duenak
prestatu gaitezen denak!*

*doinua: saltarina da txepetxa eta
NEKO*

“Nere etxian beti jarraitu izan dira San Ferminak”

Zer ibilbide egitteko gomendatuko zontsake jentiar?

Entzierrua korritzeko asmua badaka, honen aurretik zaintzeko, gero eukiko dau eta desfasatzeko denporia. Nik korrika beti Santo Domingon egin dot, baina oso da peligrusua zati hau; igoera danez, zezenak fuerte eta belozidade haundixan datoz. Entzierro ostian, txokolatia txurruekin hartzeko ohitturia egon da, nik be hala egi-tten neban. Gero soziedadietara eta be juten ginan, an-

biente politta egoten zan. Lehen txosnetan ibiltzen ginan asko, baina oin eztakit ba...

Anekdotak komentatzeko modukua?

Bakarra? Jajaja... behin txokolatia eraten nenguala jausi eta hankan markia egin zostan. Enotsan inportantzia haundirik emon eta bazkaldu ta gero “La Plaza del Castillo”-n siestia egin neban. Baina nere sospresarako, begixak zabaldu ta han nun topatzen doten nere burua gurutze gorrixan kamilla baten etzanda. Edarra sustua hartu nebana, ezeben harek pentsau ba txokolatian markia heridia zala! Egixa esan hala emoten zebe, bai.

Aurten bazoiaz?

Ez dot uste, jua zan urtekua ikusitta... Hala ta be jutekotan zezenak eta pelotia ikustera juango naiz.

SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

ELIZPE
Hertz Klinika

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

Argazki zaharra



Iturria: Begoña Alberdi.

Maristetako futbol taldea

1955 urtekoa da Begoña Alberdik laga doskun argazki hau. Bertan, Maristen eskolan futbol taldea osatu zeben gaztetxuak ageri dira.

Goian ezkerretik eskumara:

Jorge Ormazabal, Luis Mari Heriz, Jose Urresti, Bitor Laskurain, Jabier Barrenetxe, Juan Cruz Lamariano eta Ramon Gabilondo.

Makurtuta: Jose Ramon Aizpiri, Juan Antonio Garitano, Fabian González, Luis Alberdi eta Oscar Garitano.

Lehiaketa

Txirikiletan...

Aurreko aleko erantzuna

Txirikiletan jolasteko metro bat inguruko makila bat eta 30 zmkoko makilatxo bat bihar dira. Makila txikixari bi puntak zorrozten jakoz eta lurrian ipintzen da. Gero beste makiliakin punta baten jotzen da eta makilatxuak salto egitzen dau. Airian daguala beste makiliakin jotzen da. Makilatxua zeinek urrinago bota da jolasaren funtsa.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Ekaitzagaittik San Andresen kanpaiak jotzen ziranian ze esaten zan?

- Nun, nun, nun...
- Han, han, han...
- Hamen, hamen, hamen...

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

SARIA →

Afari bat
Txurruka Jatetxean

**AURREKO ALEKO
IRABAZLEA**
Ana Sebal

SARIA
Fisioterapia saio bat
Ormazabal zentruan



**ARMENDIA
JATETXEA**

Ezozu Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

**IRATXO
GOXOTEGIA**

**EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE**

**ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlf: 943 75 13 20**



Ugaraxo

2006ko ekaina



Ezoziko erromeriatik oporretara !!





ZULOAGA-TXIKIN EGONALDIA

(1go maila)

Maiatzaren 18 eta 19an Zuloaga-Txikiko ingurugiro eskolan egon ginen lehen mailako ikasleak.

Aldez aurretik gelan, erleari buruzko hainbat gauza landu genuen: anatomia, bizimodua, erleak ematen dizkigun opariak, etab.

Bertan monitore baten laguntzaz, erlea hobeto ezagutzeko zenbait tailer egin genuen: argizarizko kandela, paperezko tximeleta, ezti mota ezberdinak probatu... Gai honi buruzko jokuak eta antzerkia ere egin genituen.

1go eguneko arratsaldean, ibilalditxo bat egin genuen ondoko herrira, Anoetara hain zuzen. Bertan herriko enparantzan dagoen parkean jolastu genuen eta batzuk hango umeekin

harremanetan ere jarri ginen. Buelta, afalordurako egin genuen eta afalondoren hainbeste desiatutako momentua iritsi zen: diskoteka. Dantza batzuk bota ondoren, oheratu ginen eta berehala lo hartu genuen.

Hurrengo egunean etxerako buelta egin aurretik, erlauntzara joan ginen. Erle mota ezberdinak ikusi genituen baita benetako abaraskak eta gelaxkak nolakoak ziren. Erle erregina ikusten saiatu ginen baina ez genuen lortu.

Bazkalondoren, denbora librea izan genuen bertako parkean jolasteko eta autobusa iritsi zenean herrira itzuli ginen gura gurasoak han zai zeudela.




TXIKI - INKESTA

Ikasturteko ezkenengo egunian Ezozira juaten zarete?
Zer egitera?

XABIER JAUNTSARATS, 8 URTE

Jolastu egiten dogu, nahi dogun jolas guztietara. Haundixak abestu egiten dabe eta andereñuak txorizua emoten doskue. Kursua amaitzeko desiatzen nago oporretara juateko.




VICTORIA ROMERO, 8 URTE

Oinez juaten gara lehenengo eta bigarren mailakuak. Jolastu egiten dogu ziburuekin, zaldixekin...neri zaldixak asko gustatzen jataz. Ezozitik etxera juaten gara. Ni Eibarrera noia tianera.



EKAITZ GARATE, 7 URTE

Ezozin erromerixia egiten dogu. Jolastu, abestu... danetik egiten dogu. Ni aurtan ezin naiz jua 21ian oporretara noialako. Ezoz gustatzen jata. Jaixetan idi probak izaten dira.



CRISTINA BOUZAS, 8 URTE

Txorizo bokadillua jaten dogu neta jolasten lagatzen doskue. 2 A eta 2B gelakuak juaten gara, andereño eta maixuekin. Oinez juaten gara Ezoziraino baina ez da gogorra, bide laburra da.



JONDAR PLATA, 8 URTE

Bokadillua jaten dogu txokolatetzua edo txorizozkua. Ibiltzen igotzen gara danok Ezozira. Batzuk ez dira juaten gaixorik darelako. Ezozikua amaitzen da eta 3. mailara goiaz.



ESTELA MORENO, 8 URTE

Patixuan jolasak egiten doguz eta irabazten dabeneri koronia jartzen dotse buruan. Ni pozik nago ikas-turtia bukatzeko, hola ez dogu lanik egiten. Meridara juango naiz nere lehengusiñakin.



Gurea bai kuadrilla, gurea!!! (4 urtekoak)





UDABERRIKO IRTEERA

(5 urte)



Udaberria dela eta, hainbat gauza ezagutu, behatu, asmotan (zelaiak nola dauden, zuhaitzak, baratzak, lorak...) irteera bat antolatu genuen.

Gure lehenengo geldiuena Olako bidean dagoen lorategi polita, zaindua, ikustea izan zen, bertan hainbat lora ezagutu genituen: larrosak, kalak, krabelinak, geranioak... eta garrantzitsuena andereñoek esan zigutena, lorategiei zor diegun errespetoa, bertatik ezer hartu ezin dugula, ezta bota ere, gure herriko hainbat txoko politak ikustea nahi baditugu.

Zuek ere goza ezazue, argazki honekin!



Hau utzita aurrera jo genuen, eguraldi ona aprobetxatuz eta era berean gure hankak arintzeko

asmoz. Bidean gindoazela, aurrerakoaren guztiz kontrako ikuskizuna genuen gure begien aurrean. A zer nolako IBAI ZIKINA! Dena zaborrez beteta, benetan penagarria, eta gure galdera da. Hau horrela egotea noren errua da?

Hemen txertatu dugun argazkian oso ondo ikusi ez arren, zerbait ikusteko aukera izango duzue. Hau horrela, gure eskaera litzateke, ea hemendik aurrera denok saiatzen garan zertxobait gure ingurunea garbi zaintzen.

Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleak gara.

Urtaro polit hau
gehiago alaitzeko
asmoz, hemen
doakizue olerki
polit hau, zuek ere
ikas dezazuen.


Erleak lorez lore
Txoriak kantari
Tximeletak mendian
Pozez dantzari.
Zelaian jolasean
Bi arkume txuri
Matxinsaltoak eta
Kilkerrak saltari.
Agur kukuari
Zeru urdinari
Haize epelari
Udaberriari
Pozez betetzen gaitun
Urtaroari

www.clinicarecalde.com

**MIOPIA LASER - KATARATA
EBAKUNTZAK**



Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 20 18 44



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

San Andresko Jaixak 2006

UZTAILAREN 8, 9, 10



Uztailak 8, zapatua
Imuntzo eta Beloki

Uztailak 9, domeka
Meza, dantza,
bertsolariak, trikitixa,
pelota, bola txapelketa,
zeneztxoak eta poneiak

Uztailak 10, astelehena
Meza, umeendako jolasak,
Laja eta Landakanda trikitilariak,
Lizaso eta Egaña, emakumeen bola txapelketa

antolatzailea | San Andres Auzoko Jai Batzordea

babeslea | Soraluzeko Udala

EUSKAL TONBOLA

bai
euskarari

Euro baten truke
milaka sariri!!!



Txartelak salgai Gipuzkoa osoko tabernetan